

## ALKATEAREN ERABAKIA

**ZENBAKIA:** 0459

**GAIA:** EGOITZAKO HITZARMENA 2023

**ESPEDIENTEA:** 2023GDIR0003

**INTERESDUNA:** Jose Arana Patronatuaren Fundazioa

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 8.000,00 € euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du Fundacion Patronato Jose Arana-ren alde, 2023. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmeneta eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Gizarte zerbitzuak batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita,

Horiek horrela, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

### ERABAKI DUT

**LEHENENEGOA.-** Udalaren eta Jose Arana Patronatuaren Fundazioaren artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

**BIGARRENA.-** Fundacion Patronato Jose Aranari 8.000,00 €-ko dirulaguntza ematea, Fundazioak KUTXABANK entitatearekin kontratatutako ondorengo maileguaren amortizazioaren eta interesen kostua finantzatzeko erabiliko da:

- Maileguaren data: 2012/03/08
- ZENBAKIA: 8518666678

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenaren seigarren klausulan jasotakoaren arabera, diru laguntzaren %60. ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

**LAUGARRENA.-** 8.000,00 €-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 1 0300.471.231.91.01.2023 partidari egozte.

ALKATEA